

BILAKETAK EGITEKO ARGIBIDEAK

Datu basearen erabilera zuzena egin ahal izateko eta sortu litezken zalantzak gainditzeko, oinarrizkoak diren honako argibideak aurkezten ditugu:

1. Datuen iraulketa jarraitua.

- Datu bilketa honek izaera bizia, berritzaile eta jarraitua du. Izaera honen zergatia, bi eragileen ondorio da: Lehena, jaso daitezkeen zuzenketa, ekarpenak edota informazio gehikuntzatik eratorriko litzatekeena; bigarrena, ikerketa prozesuari loturiko faktoreak, aurkitu genezakeen dokumentazioaren edota jaso litezkeen testigantzen azterketatik erator daitezkeenak.
- 2013ko abenduan egin den datuen lehen iraulketan, franquismoak burututako eraildakoen eta gatibu hildakoen zerrendak jasotzen ditu soilik. Aurrerantzean, beste kategoria errepresiboak jasan zituzten pertsonen datuak jasoko dira.

2. Errepresaliatuen bilaketa.

- Pertsonen identifikazioa, jatorrizko dokumentazio historikoan jasotzen den izendegi eta ortografiaren arabera egin da, salbu errore nabarmen eta egiaztatuak izan direnen kasuak, zeinetan zuzenduak izan dira. Kontuan izan behar da zenbait izen eta abizen idazteko moduak aldatu egin direla denbora edota hizkuntza faktoreren eraginez (euskaraz idaztean erabili beharreko grafiagatik, ...) edota hizkuntza erabileran suertatu diren aldaketengatik ("s" edo "z" alternantziak, "de" preposizioaz lagundutako abizenak, etab.). Hau guztiagatik, azaltzen ditugun irizpideak jarraitzea eta, zalantza kasuan, bilaketa alternatiboak egitea gomendatzen dugu aurkitu nahi dugun pertsonaren izen, abizenen grafia desberdinak erabiliz.
- Ezizenek, kontserbatu direnen kasuan, ez dira inoiz abizenaren laukian jasotzen, izenaren laukian eta bere ostean baizik.

3. Toponimia eta eskualdekako sailkapena.

- Auzo, kontzeju eta udalerriak izendatzeko, Nafarroako Gobernuak onarturikoa izendegi ofiziala erabili da (Nomenclátor de Navarra 1-1-2013 / Nafarroako izendegia 2013-1-1ean).
- Eskualdeak izendatzeko, beste izendegientzako erabili den jatorri dokumental ofizial berbera erabili da, hau da, Nomenclátor de Navarra 1-1-2013 / Nafarroako izendegia 2013-1-1ean.

4. Erabilitako agiritegiak eta iturri dokumentalak.

- Ikerketa lan honen helburua denetariko iturrien aztertzea, hustutzea eta sailkatzea egitea da: agiritegietakoak, fondo dokumentalak, ahozko iturriak, bibliografikoak, etab. Beraz, iturri hauen erabilera handitzen goazen heinean eta bere emaitzak datu basean iraultzen direnean berritze guztiaren honen berri emango da.
- 2013ko abenduan datu basean iraulitako informazioaren jatorria, honakoa da:
 - Nafarroako Justizia Tribunal Goreneko Agiritegia. Zenduen Beranduko Erregistroa.
 - Iruñako Erregistro Zibileko Agiritegia.
 - Altagaylla Kultur Elkartea (2008). Navarra 1936. De la esperanza al terror. Tafalla, AKT (gehiarriko errepresaliatuen zerrendaren hustutzea).
 - Alargunen Herriko Elkarteko web orria (Sartaguda): <http://parquedelamemoria.org/todos-los-nombres-navarra>. "Visualiza" erakundeak web horri honen bitartez, Sartagudako "Oroimenaren parkea"n kokaturiko hormaren osagarri da.

5. Datuen zuzenketak.

- Datu base honetan agertzen diren pertsonen buruzko informazioa zuzendu, osatu edota erregistratu gabeko errepresio kasu baten berri eman nahi izanez gero, helbide elektronikoa honetara idatz dezazuen eskatzen dugu: fondo.memoriahistorica@unavarra.es